

**Crónica de la Jornada celebrada sobre «Contribución de las empresas y las Administraciones Públicas a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral para conseguir la igualdad efectiva entre mujeres y hombres con fundamento en la corresponsabilidad»**

FRANCISCO JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

Profesor titular de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social  
Universidad de Deusto

El 18 de diciembre pasado, se celebró en el Salón de Actos del Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia la jornada «Contribución de las empresas y las Administraciones Públicas a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral para conseguir la igualdad efectiva entre mujeres y hombres con fundamento en la corresponsabilidad», organizada por la Academia Vasca de Derecho y el Grupo de Estudio de Derecho Civil Vasco del ICAB y subvencionada por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, en el marco del Decreto Foral 12/2018, de 20 de febrero, por el que se convocan subvenciones, durante el año 2018, a entidades sin ánimo de lucro que aborden proyectos para la realización de actividades dirigidas a la promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

En la jornada participaron como ponentes, por una parte, los integrantes del grupo de investigación reconocido por el Gobierno Vasco «Cooperativismo, fiscalidad, fomento, relaciones laborales y protección social» de la Universidad de Deusto Francisco Javier Arrieta Idiakez, Alberto Atxabal Rada, Santiago Larrazabal Basañez, Eba Gaminde Egia, Gonzalo Martínez Etxeberria, Josune López Rodríguez e Itxaso Gallastegi Ormaetxea. Y, por

otra parte, los miembros del Grupo de Estudio de Derecho Civil Vasco del ICAB Alkain Oribe Mendizabal y José Miguel Gorostiza Vicente.

Durante la apertura de la jornada intervinieron la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad Teresa Laespada Martínez, la Vicedecana del Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia Patricia Bárcena García, el Vicepresidente de la Academia Vasca de Derecho Nazario Oleaga Páramo y la Vicedecana de la Facultad de Derecho de la Universidad de Deusto Mariola Serrano Argüeso.

Tras la apertura, comenzó la jornada con la intervención de Alberto Atxabal Rada, profesor titular de Derecho Tributario de la Universidad de Deusto, sobre el tema «Medidas fiscales para la conciliación laboral en los impuestos sobre la renta». En su intervención destacó que la conciliación laboral y familiar precisa de un apoyo por parte de los poderes públicos, que puede concretarse en el establecimiento de medidas fiscales que favorezcan la misma. Así, manifestó que el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) se convierte en el medio idóneo para acoger estas medidas dada la posibilidad que ofrece para subjetivizar la carga tributaria tomando en consideración las circunstancias personales del contribuyente a la hora de cuantificar el Impuesto a pagar. No obstante, matizó que junto a medidas que favorezcan la conciliación, existen en el IRPF otras medidas que pueden suponer un obstáculo al acceso al mercado de trabajo de la mujer casada o miembro de una pareja de hecho, como sucede con la actual regulación de la reducción por tributación conjunta, que debería suprimirse de forma gradual.

A continuación intervino Itxaso Gallastegi Ormaetxea, graduada en Derecho, becaria predoctoral del Gobierno Vasco e investigadora de la Universidad de Deusto, con el tema «Contratación pública y perspectiva de género: aplicación de cláusulas sociales para alcanzar la igualdad efectiva entre mujeres y hombres en el empleo». Después de subrayar que la brecha de género en el ámbito del empleo sigue siendo una realidad en

España, manifestó que corresponde a los poderes públicos combatir la discriminación laboral que sufre la mujer y que, para ello, deben integrar la igualdad de trato y de oportunidades en todas sus actividades. En ese sentido, consideró que la contratación pública, desde un punto de vista instrumental y en clave del Estado social, puede contribuir a dicho objetivo. Por ello, su intervención giró en torno a la idea principal según la cual la incorporación transversal de cláusulas sociales en los contratos públicos constituye una sólida estrategia de actuación.

En tercer lugar intervino Josune López Rodríguez, profesora doctora de Derecho Social de la Universidad de Deusto, para presentar algunos de los resultados de la investigación llevada a cabo junto a Santiago Larrazabal Basañez, profesor titular de Derecho Constitucional de la Universidad de Deusto sobre el tema «Análisis jurídico de las situaciones de desprotección y riesgo de desprotección de las mujeres en el ámbito laboral: propuestas para avanzar hacia su empoderamiento». En concreto centró su exposición en el hecho de que en el ámbito de las relaciones laborales se dan con frecuencia situaciones que generan desprotección para las mujeres. Partiendo de dicha realidad abordó cuatro situaciones concretas, a saber: el trabajo informal, la explotación laboral, la trata de personas y el acoso laboral. Tras analizar dichas situaciones realizó propuestas para avanzar hacia la prevención de estas situaciones y hacia el empoderamiento de las mujeres.

En cuarto lugar, intervino Francisco Javier Arrieta Idiakez, profesor titular de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social de la Universidad de Deusto, con el tema relativo a la «Concreción de las fases a contemplar por los planes de igualdad y propuesta de contenidos para cada fase como modelo a seguir». Así, tras referirse al concepto de plan de igualdad y a los fundamentos del mismo, centró la atención, primero, en la iniciativa para llevar a cabo dicho plan y en los costes y beneficios del mismo, para, después, abordar las correspondientes fases que deben darse a la hora de programar, implementar y evaluar un plan de igualdad, así como

los contenidos de cada una de esas fases. En ese sentido, se refirió al compromiso de elaborar un plan de igualdad, a la constitución de un comité o comisión permanente de igualdad, a la presentación del plan en la empresa y a los aspectos que deben reflejarse en el documento que lo sostiene, a saber, la descripción de la finalidad de plan, el marco jurídico de referencia, los conceptos de interés, el ámbito funcional, territorial y temporal de aplicación, el diagnóstico de situación, los concretos objetivos de igualdad a alcanzar y el establecimiento de sistemas eficaces de seguimiento y evaluación de los objetivos fijados.

En quinto lugar, Eba Gaminde Egia, profesora doctora de Derecho Mercantil de la Universidad de Deusto y Gonzalo Martínez Etxeberria, profesor doctor de Derecho Constitucional de la Universidad de Deusto, intervinieron sobre el tema «La empresa cooperativa como marco idóneo para la concreción de las políticas de igualdad de género en materia laboral». En concreto, defendieron que el paradigma cooperativo constituye una de las vías en las que trabajar en aras de una igualdad real y efectiva en el ámbito laboral, a través de los valores de igualdad, equidad y democracia y de principios como la adhesión voluntaria y abierta o el control democrático por los socios/as, que deberán concretarse en acciones coherentes y ambiciosas dentro de cada cooperativa para que la igualdad sea una realidad constatable y no una simple aspiración.

En último lugar, Alkain Oribe Mendizabal y José Miguel Gorostiza Vicente, abogados y miembros del Grupo de Estudio de Derecho Civil Vasco del ICAB, abordaron el tema relativo a las «Iniciativas concretas desde la Abogacía encaminadas a mejorar la conciliación personal, familiar y laboral». En ese sentido, tras identificar los principales problemas que existen para materializar en la práctica el derecho a la conciliación en el ámbito de la abogacía, expusieron el trabajo que a lo largo de los últimos años se ha realizado desde el Colegio de la Abogacía de Bizkaia, mostrando, asimismo, multitud de buenas prácticas al respecto.

**«Enpresek eta Administrazio Publikoek nola lagun dezaketen norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izan dadin, ardurakidetasuna oinarri» jardunaldia egin da**

Iragan abenduaren 18an, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren Ekitaldi Aretoan «Enpresek eta Administrazio Publikoek nola lagun dezaketen norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izan dadin, ardurakidetasuna oinarri» jardunaldia egin zen, Zuzenbidearen Euskal Akademik eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Ikerlan Taldeak antolatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak diruz lagunduta, oinarri hartuta otsailaren 20ko 12/2018 Foru Dekretua, deialdia onesten duena, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiten dituzten irabazteko asmorik gabeko erakundeei 2018. urtean diru-laguntzak emateko.

Jardunaldian hizlari aritu ziren, batetik, Eusko Jaurlaritzak aitortutako ikerketa-taldeetatik Deustuko Unibertsitateko «Kooperativismoa, fiskalitatea, sustapena, lan-harremanak eta Gizarte Babesa» ikerketa-taldeko kide diren Francisco Javier Arrieta Idiakez, Alberto Atxabal Rada, Santiago Larrazbal Basañez, Eba Gaminde Egia, Gonzalo Martínez Etxeberria, Josune López Rodríguez eta Itxaso Gallastegi Ormaetxea. Eta, bestetik, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Ikerlan Taldeko kide diren Alkain Oribe Mendizabal eta José Miguel Gorostiza Vicente.

Jardunaldia hasteko ekitaldian parte hartu zuten Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Diputatu Teresa Laespada Martínezek, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko Dekanorde Pa-

tricia Bárcena Garcíak, Zuzenbidearen Euskal Akademiako Lehendakariorde Nazario Oleaga Páramok eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Dekanorde Mariola Serrano Argüesok.

Jardunaldiko hizlariei dagokienez, jardunaldia hasi zen Deustuko Unibertsitateko Tributu Zuzenbideko irakasle titular Alberto Atxabal Radaren «Norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzeko neurri fiskalak errentaren gaineko zergetan» hitzaldiarekin. Familia eta lana uztartzeak botere publikoen laguntza behar duela nabarmendu zuen. Halatan, berauen ustez, laguntza hori neurri fiskaletan mamitu daiteke, uztartze horren alde eginez. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) halako neurriak jasotzeko tresna egokia izan daitekeela defendatu zuen, tributu-zama banatzeko aukera ederra ematen duelako zergadunaren inguruabar pertsonalak aintzat hartuz eta ordaindu beharreko zerga zenbatzeko orduan egokituz. Nolanahi den ere, uztartze horren aldeko neurri horiekin batera, adierazi zuen PFEZn badirela emakume ezkondua edota izatezko bikotekidea laneratzeko oztopo izan daitezkeen arauketak ere, esate baterako, tributazioaren ziozko murrizketa, apurka-apurka eza batu beharko litzatekeena.

Bigarrenik, hizlari aritu zen Itxaso Gallastegi Ormaetxea, zuzenbideko graduatua, Eusko Jaurlaritzako doktoratu aurreko bekaduna eta Deustuko Unibertsitateko ikerlaria. Hizpide izan zuen hurrengo gaia: «Kontratacio publikoa eta genero-ikuspegia: klausula sozialak aplikatzea enpleguan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria lortzeko». Nabarmendu zuenez, enplegu arloko genero-arrakalak errealitate izaten jarraitzen du Spainian. Horregatik, defendatu zuen botere publikoei dagokiela emakumeak lan-munduan jasaten duen diskriminazioari aurre egitea eta, horretarako, tratu- eta aukera-berdintasuna egintza orotan integratzea. Halatan, kontratacio publikoak, ikuspuntu instrumental batetik eta Estatu sozialaren klabean, helburu hori lortzen lagundu dezakeela azaldu zuen. Beraren tesi nagusia izan zen kontratu publi-

koetan klausula sozialak zeharka gehitzeak jarduera-estrategia irmoa era-tzen duela.

Hirugarrenik, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Zuzenbideko irakasle doktore Josune López Rodríguezek gogora ekarri zituen Deustuko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasle titular den Santiago Larrazabal Basañezkin batera egindako ikerketaren ondorio nagusiak. Hain zu-en, ikerketaren izenburuean, «Lan-esparruan aztertzea emakumeen babesik gabeko egoerak edo emakumeek babesik gabe jarduteko izan ditzaketen arrisku-egoerak: emakumeak ahalduntzeko proposamenak», azaldu zuen nola lan-esparruan, sarritan, emakumeen babesik gabeko egoerak sortzen diren. Errealitate horretatik abiatuta, lau egoera aztertu zituen: emplegu informala, lan esplotazioa, gizakien trata eta lan-arloko jazarpena. Eta egoera horiek aztertu ondoren, horiek ekiditeko eta emakumeak ahalduntzeko proposamen zehatzak ere egin zituen.

Laugarrenik, Deustuko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titular Francisco Javier Arrieta Idiakezek parte hartu zuen, «Berdintasun-planek izan beharreko faseak zehaztea eta fase horietako bakoitzean landu beharreko edukiak proposatzea, eredu gisa baliatu ahal izateko» gaiarekin. Horrela, berdintasun-planaren kontzeptuari eta horren oinarriei erreparatu ondoren, arreta jarri zuen, lehenengo, halako planak gauzatzeko ekimenean eta horiek dituzten kostu eta onuretan. Eta gero berdintasun-plan bat programatu, aplikatu eta ebaluatzenko izan beharreko faseei heldu zien, bai eta fase horietariko bakoitzak izan beharreko edukiei ere. Esangura horretan, beren-beregi aztertu zituen berdintasun-plana egiteko konpromisoa, berdintasunerako komite edo batzorde iraunkorra eratzea, plana enpresan aurkeztea eta plan hori zein agirik jaso eta agiri horretara bildu beharreko inguruabarrak, hala nola, planak duen xedearen deskripzioa, erreferentziazko esparru juridikoa, kontzeptu interesgarriak, esparru funtzional eta lurralte— eta denbora-esparru aplikagarriak, egoeraren diagnostikoa, ze-

hazki lortu nahi diren xedeak, eta ezarritako xedeen jarraipena egin eta xede horiek ebaluatzeko sistema eragigarriak jasotzea.

Bosgarrenik, Deustuko Unibertsitateko Merkataritzako Zuzenbideko irakasle doktore Eba Gaminde Egiak eta Konstituzio Zuzenbideko irakasle doktore Gonzalo Martínez Etxeberriak honako gai hau jorratu zuten: «Kooperatiba-enpresa laneko gaietan berdintasun-generoko politikak zehazteko esparru egoki gisa». Modu horretara, defendatu zuten kooperatiba-eredua benetako berdintasuna erdiesteko bidea izan daitekeela, ekitate, berdintasun eta demokraziaren balioei zein atxikimendu aske eta kudeaketa demokratikoaren printzipioei esker. Alabaina, adibide desberdinenean bidez, nabarmendu zuten balio eta printzipio horiek ekintza koherente bihurtu behar direla kooperatiba bakoitzean, berdintasuna egiazatzeko moduko errealtitatea izan dadin, eta ez asmo hutsa.

Azkenik, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Ikerlan Taldeko kide eta abokatu Alkain Oribe Men-dizabal eta José Miguel Gorostiza Vicentek hizpide izan zituzten «Abokatutzatik proposatutako ekimen zehatzak norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzea hobetzeko». Ildo horretatik, abokatutzaren esparruan uztartze hori praktikan gauzatzeko egon dauden arazo garrantzi-tsuenak identifikatu ostean, azaldu zuten azken urteotan Bizkaiko Abokatuen Elkargotik egin den lan eskerga, eta horren inguruko edozenbat jardunbide egokiren berri ere eman zuten.